



## 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

# A eredua BIZKAIERA

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
LANTOKIA _____	KATEGORIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Honeek ariketa biok egiteko **ordubete eta 40 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakotxaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra garbia egiten.



## 1. IRAKURMENA

### Ariketa-motea: CLOZE-TESTA

#### Zelan egin:

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakoitxak berba bat kendu dala adierazoten dau.
  - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markatu **erantzun-orrian**.
  - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea dozu onena.
- Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dozuz ondo.

## LOA SEXISTEA ETE DA?

Loaren gaineko ikerketa bitxia argitaratu dau Ameriketako Estatu Batuetako zientzialari-talde batek. Andrek eta gizonek lo desbardin egiten dabela adierazo dau; andrek \_\_1\_\_ eta hobeto, gizonek arinago. Lorik eza, \_\_2\_\_, emakumeek errazago eroan \_\_3\_\_ dabela dino, eta gizonei ondorio txarragoak \_\_4\_\_ deutsezala. Ikerketa Pennsylvaniako Unibersidadeko \_\_5\_\_ batzuen artean egin dabe, eta *Chemistry and Industry* aldizkarian \_\_6\_\_ dabe.

Azaldu \_\_7\_\_, ikerketa egiteko 20-30 urte \_\_8\_\_ hogeta bost gizon-emakume hurretik aztertu zituen orain hilabete \_\_9\_\_. Egunero, ohi baino ordu bi gitxiago lo egiten \_\_10\_\_ zituen, eta euren garunean horrek ze \_\_11\_\_ eukazan aztertu eben.

\_\_12\_\_, danetan, emakumeetan zein gizonetan, logurea izan zan \_\_13\_\_, eta konzentrauta egoteko gaitasuna galdu eben, \_\_14\_\_. Gizonen burmuinean, \_\_15\_\_, emakumeen burmuinaren aldean, substantzia kimiko \_\_16\_\_ batzuk — TNF alfa izenekoak— aurkitu zituen, \_\_17\_\_ kalte handia eragin \_\_18\_\_, diabetesa eta loditasuna, esate baterako.



\_\_19\_\_ ikerketearen datuak aztertu \_\_20\_\_, ondorio bat plazaratu dabe: emakumeak gehiago bizi dira, eta loa izan \_\_21\_\_ errazoa. «Emakumeek hobeto egiten dabe lo; hori \_\_22\_\_ da bizitza luzeagoa eukitearen \_\_23\_\_ bat?» itandu dau ikerketearen arduradun nagusiak, Alexandros Vgontzas ikertzaileak.

Izan be, jakina da emakumeak, \_\_24\_\_, urte gehiago bizi dirala gizonezkoak \_\_25\_\_. Agiri-agirikoa da aldea, hainbat \_\_26\_\_. Edozelan be, gizonezkoek hobeto lo egingo balebe, \_\_27\_\_, euren bizitza luzeagoa egingo \_\_28\_\_ adierazo dabe ikertzaileek. \_\_29\_\_ hori bera emon dau aditzen Neil Stanley-k Surrey Unibersidadeko zientzialariak. «\_\_30\_\_, lo egitea \_\_31\_\_ da osasun ona eukiteko», azaldu dau. «Ezin da pentsatu lotan gagozan orduak \_\_32\_\_ bako denpora pasiboak diranik». Organismoari ordu horreek \_\_33\_\_ itzela egiten deusiela gogoratu gura izan dau, eta \_\_34\_\_ ezin dituala ordeztu lo-eskasiak dakarzan ondorio txarrak.

Vgontzasen \_\_35\_\_, eguneko 24 orduak erreguletan dituan erloju \_\_36\_\_ daukagu danok, eta erloju horren orekeari \_\_37\_\_, derrigorrezkoa da ondo lo \_\_38\_\_. Gainerakoan, hormonen produkzioa aldatu egiten dala \_\_39\_\_ dau, eta osasunak nabarmen \_\_40\_\_ dituala horren ondorioak. Ildo berean, \_\_41\_\_ lan egiteak zein 7 ordu bakarrik lo egiteak gorputzari ondorio txarrak ekarri \_\_42\_\_ adierazo dau. «Neurri baten, naturearen \_\_43\_\_ gabilz, eta horrek ondorioak euki leiz», emon dau aditzen.

Emakumeen eboluzioa aitatzean, Vgontzas ikertzaileak ez dau bakarrik esan emakumeek lo-faltea \_\_44\_\_ gaitzen dabela. Urrunago joan da. Hori emakumeen \_\_45\_\_ ondorioa izan leitekela adierazo dau. Andrek umeen gauak arretaz zaintzen gizaldi luzeak egin dituela gogoratu dau, eta akaso horregaitik errazago \_\_46\_\_ dituela lo-eskasiaren ondorioak. Jakina da \_\_47\_\_ zehar fase desbardinak eukiten dirana. Lo sakonean atsedean handia hartzen dau personeak, gorputz-funtzioak nabarmen \_\_48\_\_ dira eta. Emakumeek gau osoko lotaldian, orokorrean, 70 minutu egiten ditue lo sakonean, \_\_49\_\_, barriz, gitxiago: 40 minutu. Duda barik, \_\_50\_\_ da Vgontzasen ustea. Izan be, loa be sexistea ete da?

*Egunkaria*, 2002-07-16  
Egokitua



## 1.1. AUKEREN ORRIA

- |   |   |   |  |
|---|---|---|--|
| 1. a) gogotsuago<br>b) batuago<br>c) sakonago<br>d) zabalago      | 2. a) gainera<br>b) barriz<br>c) gainean<br>d) ostera               | 3. a) ahala<br>b) al<br>c) ete<br>d) ohi  | 4. a) aitatzen<br>b) eragiten<br>c) atzeratzen<br>d) murrizten     |
| 5. a) ikertzaile<br>b) laguntzaile<br>c) hizlari<br>d) idazle     | 6. a) bideratu<br>b) irakurri<br>c) erditu<br>d) argitaratu         | 7. a) dabelako<br>b) dabela<br>c) dabenean<br>d) dabenez                              | 8. a) bitartean<br>b) bitarteko<br>c) bitartez<br>d) bitartetik    |
| 9. a) gehiago<br>b) hainbat<br>c) batzuk<br>d) zenbat             | 10. a) behartu<br>b) eroan<br>c) moldatu<br>d) egokitu              | 11. a) errazoi<br>b) ondorio<br>c) erio<br>d) euskarri                                | 12. a) Lez<br>b) Bestela<br>c) Badaezpada<br>d) Orokorrean         |
| 13. a) nagusi<br>b) kezka<br>c) poza<br>d) burruka                | 14. a) nabarmen<br>b) derrigor<br>c) jakina<br>d) zoritxarrez       | 15. a) ordez<br>b) orduan<br>c) beraz<br>d) ostera                                    | 16. a) kaltebako<br>b) kaltedun<br>c) kaltegarri<br>d) kaltetasun  |
| 17. a) orekeari<br>b) osasunari<br>c) nortasunari<br>d) adimenari | 18. a) leieenak<br>b) leitekezanak<br>c) leuskioenak<br>d) leioenak | 19. a) Zientzialariek<br>b) Zientziatzaileek<br>c) Zientziadunek<br>d) Zientziazaleek | 20. a) ondoan<br>b) ondoren<br>c) aurretik<br>d) orduan            |
| 21. a) leiteke<br>b) daiten<br>c) lei<br>d) leuke                 | 22. a) ete<br>b) ei<br>c) bestela<br>d) behintzat                   | 23. a) arazoetako<br>b) ondorioetako<br>c) zorionetako<br>d) giltzetako               | 24. a) batez be<br>b) bat-batean<br>c) batez beste<br>d) behintzat |



25. a) ordez  
b) baina  
c) baino  
d) beste
26. a) urteetakoa  
b) urtetakoa  
c) urtekoa  
d) urteetan
27. a) beharbada  
b) beraz  
c) dana dala  
d) barriz
28. a) leukela  
b) zeikeala  
c) leiela  
d) leukiola
29. a) Uste  
b) Irudikapen  
c) Sinismen  
d) Asmo
30. a) Dakigunez  
b) Dakigu  
c) Jakinda  
d) Jakina
31. a) ezinezkoa  
b) alperrekoa  
c) ezinbestekoa  
d) behartsua
32. a) borondate  
b) ames  
c) susmo  
d) kontzientzia
33. a) kalte  
b) mesede  
c) ilusino  
d) mehatxu
34. a) ezerk  
b) zerk  
c) bestek  
d) edozeinek
35. a) esanaz  
b) hitzez  
c) borondatez  
d) eretxiz
36. a) biokimikoa  
b) zehatza  
c) biologikoa  
d) orekatua
37. a) bardintzeko  
b) eusteko  
c) txikitzeko  
d) gainditzeko
38. a) egitea  
b) egin  
c) egiten  
d) egiteko
39. a) kritikau  
b) goratu  
c) azaldu  
d) osotu
40. a) baztertzen  
b) txikitzen  
c) ezkutetan  
d) igarten
41. a) txandaka  
b) epeka  
c) bakarka  
d) taldeka
42. a) leiozala  
b) leizala  
c) deiola  
d) leiela
43. a) alde  
b) kontra  
c) parean  
d) erdian
44. a) hobe  
b) hobeago  
c) ondoen  
d) hobeto
45. a) hitzarmenaren  
b) ahuleziaren  
c) inertziaren  
d) eboluzinoaren
46. a) galtzen  
b) gainditzen  
c) sortzen  
d) eskuratzen
47. a) logalean  
b) lotian  
c) lotaldian  
d) lotan
48. a) suspertzen  
b) bizkortzen  
c) biziagotzen  
d) moteltzen
49. a) gizasemeek  
b) semeek  
c) gizakiek  
d) senarrek
50. a) eztabaidagaia  
b) eztabaidakorra  
c) eztabaidagatxa  
d) eztabaidagarria



## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA —

**Irakurgaia:** "LOA SEXISTA AL DA?"

**Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA

**Baremoa:** Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dira ondo.

### ERANTZUN ZUZENAK

1.	<b>C</b>	2.	<b>A</b>	3.	<b>D</b>	4.	<b>B</b>
5.	<b>A</b>	6.	<b>D</b>	7.	<b>D</b>	8.	<b>B</b>
9.	<b>C</b>	10.	<b>A</b>	11.	<b>B</b>	12.	<b>D</b>

13.	<b>A</b>	14.	<b>A</b>	15.	<b>D</b>	16.	<b>C</b>
17.	<b>B</b>	18.	<b>D</b>	19.	<b>A</b>	20.	<b>B</b>
21.	<b>A</b>	22.	<b>A</b>	23.	<b>D</b>	24.	<b>C</b>

25.	<b>C</b>	26.	<b>B</b>	27.	<b>A</b>	28.	<b>D</b>
29.	<b>A</b>	30.	<b>A</b>	31.	<b>C</b>	32.	<b>D</b>
33.	<b>B</b>	34.	<b>A</b>	35.	<b>D</b>	36.	<b>C</b>

37.	<b>B</b>	38.	<b>A</b>	39.	<b>C</b>	40.	<b>D</b>
41.	<b>A</b>	42.	<b>A</b>	43.	<b>B</b>	44.	<b>D</b>
45.	<b>D</b>	46.	<b>B</b>	47.	<b>C</b>	48.	<b>D</b>
49.	<b>A</b>	50.	<b>D</b>				



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** ESKUTITZA

**Oharrak:**

- Gitxienez 35 lerro idatzi behar dozuz.
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar dozu.

**GAIA:** Zure aitak 86 urte daukaz, eta medikuagana joan zarie.

Medikuak belaun bietan protesiak ipini behar deutesiezala esan deutesue, baina , gitxienez, urtebete itxaron beharko dozuela.

Uste dozue denpora hori luzeegia dala. Idatzi eskutitz bat ospitaleko zuzendari-gerenteari, eta eskatu urtenbideren bat emoteko.



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60